

VI. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA

2. kronika: **Euskararen eremuak****Erabileraren tipologia**

Hizkuntza erabilera neurtzeko, Inkestek 5 mintzamolde erabili dituzte: *beti euskaraz*, *euskaraz erdaraz baino gehiago*, *euskaraz erdaraz bezainbat*, *euskaraz erdaraz baino gutiago*, *beti erdaraz*. Aurkezpen ofizialean, euskararen erabilera neurtzen delarik, herritar guziak kontuan hartzen dira, erdaldunak barne dakigularik erdaldunek ezin dutela euskaraz hitz egin. Halere ikusmolde hau normala da hizkuntza politika arduradunentzat ikusteko zenbat euskara entzuten den euskararen herrian. Ondorioak oso ahulak dira euskaldun baino erdaldun gehiago baita, euskaldunak %30 dira eta erdaldunak %70..

Beste ikusmolde bat bada, euskaldunek, hiztun ala hartzaile, zein heinetan erabiltzen duten euskara. Badugu ikusmolde orokor bat euskararen erabileraz, hizkuntza gaitasunaren arabera eta hizkuntza batekin edo bestearekin duten errextasuna kontuan hartuz. Baina ikerketa berdina egin dezakegu eremuz eremu. Kontuan hartzen ditugu Ipar Euskal Herriko 74.500 euskaldunak (%30) : 51.200 hiztun gehi 23.300 elebidun hartzaile. Baztertzen ditugu 136.500 erdaldunak (%70), definizioz ezin baitute euskara erabili. Horretarako *beti erdaraz* lerroari kendu behar zaio eremuko erdaldunen kopurua, eta beste emaitzak eraberran aldatu behar dira. Har ditzagun Iparraldeko emaitzak galde honi buruz "*Zein hizkuntzatan hitz egiten du etxean*". Erdaldunak baztertuz emaitzak hauexek dira.

1. <i>Erantzunak</i>	2. <i>Hiztunen kopurua eta %</i>	3. <i>Euskararen koefizientea</i>	4. <i>Euskararen heina</i>
Beti euskaraz	6.496 %11.2	1	6.496
Euskaraz gehiago	4.734 %8.1	0.75	3.550.5
Euskaraz eta frantsesez berdin	7.310 %12.6	0.50	3.655
Euskaraz gutiago	13.577 %23.3	0.25	3.394.3
Beti frantsesez (euskaldun oro)	26.119 %44.8	0	0
Euskaldunak oro (%29.9)	58.236 %100	%29.4	17.095.8
<i>Erdaldunak (%70.1)</i>	<i>136.533</i>	<i>%0</i>	
Orotara (%100)	194.769	%8.8	

Iturria : VI. inkesta soziolinguistikoa, 2016.

Metodologia honek bi berezitasun dauzka.

1. Euskaldun guziak kontuan hartzen ditu, erdaldunak bazterrean utziz.
2. Mintzamolde ezberdinen gainetik, euskararen heina kantifikatzen du.

Lehen zutabeko bost mintzamolde hauek hainbat egoeratan, kolorezko diagrama politetan agertzen dira, baina irakurtzeta ez da biziki erretx. Gure hautua da euskararen erabilera erakustea ehuneko bakar baten bidez komunikazio egoera bakoitz.

2. zutabean mintzamolde bakoitzak erabiltzen duten hiztunen kopurua eta ehunekoa agertzen da, euskaldunen artean, hiztun ala hartzaile.

3. zutabean lerrokatu ditugu mintzamolde bakoitzak euskarari ematen dion lekua, koefiziente hauekin: 1, 0.75, 0.50, 0.25 eta 0, hurrenez hurren. Hurbilketa honek ideia bat ematen digu hiztunek, hitz egiterakoan, euskarari ematen dioten lekuaz.

4. zutabean, arabera euskal koefizientea aplikatzen diogu mintzamolde bakoitza erabiltzen duten hiztun kopuruari. Gauza bera egin zitekeen mintzamolde bakoitzaren ehunekoarekin, ondorio berdina izanen zen.

Ondorioak agertzen dira beheko hiru lerroetan, euskaldunek etxean erabiltzen duten euskararen heina (%29.4), erdaldunen lekua eta jendetza osoari begira zein den euskararen heina (%8.8) Ulertu behar da euskadun inkestak etxekoekin hitz egiten dutelarik 100 elkarrizketatik kasik 30 euskarazkoak direla. Kontrastez frantsesaren neurria %70koa da.

Aurkezpen ofizialean bezala jendetza osoa hartzen badugu erreferentziatzat, emaitzak askoz ahulagoak dira euskararentzat eta kuraia galgarri euskaldunentzat.

Euskararen erabilera harreman eremuetan

Euskararen erabilera familian

Familian	Euskaldun jendetza	Euskaraz + edo berdin %	Euskaraz gutiago %	Beti frantsesez %	Euskararen heina %
Etxean	58.236	32	23	45	<u>%30</u>
Seme alabekin	72.649	21	10	69	%20
Amarekin	42.345	34	10	56	%29
Aitarekin	33.566	28	9	63	%25
Anai-arrebeekin	65.261	45	13	42	%40
Bizilagunarekin	38.944	28	15	57	%25

Euskaldunek familian dute euskara gehienik erabiltzen, bereziki anai-arreben artean (%40), haurrak gurasoekin amarekin (%29) aitarekin baino gehiago (%25). Burasoak beren artean laurdenaren heina (%25) are gutiago seme-alabekin (%20) ez baita hizkuntza pedagogiaren, adibide ona. Dena dela, etxean euskararen heina heren bat da doi doa (%30) eta beraz bi heren frantsesarentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoan Arrue inkestak ehuneko berdintsuak agertu zituen. 10 urteko ikasleen familietan %25, amarekin %26, aitarekin %24, anai-arreben artean % 31, burasoen artean %14. Larzabalen Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioko ikasleen familietan emaitzak anitzez hobeak dira : burasoak elkarrekin %41 euskaraz, seme-alabekin %87 ; haurrak aita edo amarekin %53, anai-arreben artean % 52, lagunekin %51.

Euskararen erabilera jendarte hurbilean

Jendarte hurbilean	Euskaldun jendetza	Euskaraz + edo berdin %	Euskaraz gutiago %	Beti frantsesez %	Euskararen heina %
Lagunekin	74.583	42	25	33	%37
Lankideekin	35.135	35	20	46	%30
Auzokoeekin	73.089	32	19	49	%28

Lagunartean da euskara gehienik entzuten (%37). Gero langileek beren artean (%30). Gutixago auzokoen artean (%28). Ezberdintasunak ulergarriak dira, nork bere lagunak hautatzen baititu, baina lankideak eta auzoak ez dira hautuzkoak.

Euskararen erabilera zerbitzu publikoetan

Gizarte erabilera	Euskaldun jendetza	Euskaraz + edo berdin %	Euskaraz gutiago %	Beti frantsesez %	Euskararen heina %
Saltegietan	73.064	20	21	60	%18
Bankuetan	69.605	08	08	84	%07
Osasun zerbitzu	72.232	14	12	74	%12
Herriko etxean	70.672	27	13	60	%23
Administrazioan	68.893	06	08	86	%06
Eremu formal.	74.583	11	26	63	<u>%13</u>

Zerbitzu publikoen eremua basamortu bat da euskararentzat, salbu herriko etxeak (%23) eta auzoetako saltegiak (%18). Orotan euskaldunek frantsez hutsa erabiltzen dute maizenik, banketxeetan ala osasun zerbitzuetan (%93 eta %88). Administrazio publikoetan euskararik ez da kasik entzuten (%6). Konparaketa honek erakusten du onarpen publikoaren beharra euskararen garapenerako.

Herriko Etxeetan

Udaletxeak dira zerbitzu publiko euskaldunduenak (%23), ekintza zerrenda luze baten ondorioz. 1950 inguru, Euskaltzaleen Biltzarrak Herriko Etxeak bultzatu zituen herrien euskarazko izenak agertzerantz. 1980an Euskaltzaindiak eraman zuen "Bai Euskarari" kanpaina. 1990ean Euskal Kultur Erakundeak "Euskara Agerian" ekimena abiatu zuen Herriarteko Sindikatuarekin udal barneko eta bide bazterretako seinaletika euskaldunduz. 2001ean Euskal Konfederazioak, lankidetzaren berarekin, "Euskararen presentzia sustatu Herriko Etxeetan" dokumentua zabaltzeko, bildumak eta erabaki ofizialak bi hizkuntzetan agertzeko.

Aspaldidanik ikusi ditugu Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ekintzak. Geroago eraman ziren Kontseiluaren "Bai euskarari" eta "Bai euskaraz" kanpainak. "Demo"-en ekimenak bestalde.

2006an, urrats handi bat egin zen Euskararen Erakunde Publikoak euskara teknikari-garatzailen sarea muntatu zuelarik tokiko elkargoen partaidetzarekin, hizkuntza politika bat eskualdeka antolatzeko. Sare honek bide asko irekitzen ditu : ekimenak ugari daitezke ; politika publikoa molda daiteke tokiko egoeraren arabera ; lehen mailako lurralde elkargoak inplika daitezke euskararen aldeko urraspide orokorrean. Teknikari-garatzailen sarea urratsez urrats zabaltzen ari da eta atxikimendu handia dauka, dispositiboan engaiatu diren hiri eta elkargoegandik. Orain Euskal Elkargoaren eskuduntzan da hizkuntz politika. Jadanik funtsezko erabakiak hartuak dira euskara eremu publikoan zabaltzeko. Ikus herritarrak mugimenduari jarraikiko direnetz.

Erramun Bachoc, 2017-08-04, baxok@wanadoo.fr